

***Hernaniko ostalaritza establezimendu eta jatetxeak berraktibatzekeo laguntzak, Covid-19ak eragindako pandemiari eusteko helburuz dekretatutako itxieraren ondorioz jasandako kalteei aurre egiteko.***

Hernaniko Udalak, azken neurri hauek direla eta sortutako egoeraren aurrean, ostalaritzari zuzendutako diru-laguntza lerro bat sortzea proposatu du, izan ere, ostalaritza sektorea itxi beharrean aurkitu da Eusko Jaurlaritzak azaroaren 6an emandako 38/2020 dekretuaren ondorioz.

Udalaren diru-laguntza deialdi hau Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen bidez bideratu diren diru laguntza lerroak osatzera dator.

Aurrekoa kontuan hartuta, udalbatza honek salbuespenezko egoera horrek sortutako egoerari erantzun besterik ez du, Hernaniko udalerraren eta herritarren mesedetan.

## **1. artikulua.- Helburua.**

Laguntza hauen helburua da COVID-19 pandemiak eta alarma egoerak Hernaniko ostalaritza establezimendu eta jatetxeetan eragindako kaltea arintzera bideratutako laguntza-programa arautzea. Alarma-egoeraren adierazpenaren baitan, birusak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko eta pandemiari eusteko ezarritako prebentzio neurri berezien ondorioz guztiz itxi dira ostalaritzako eta errestaurazioko establezimenduak eta zerbitzuak.

Larrialdi ekonomikoko egoera honetan Hernaniko Udalaren lehentasuna da herriko ostalaritza sektoreari babesa eta laguntza ekonomikoa ematea. Hartutako neurrien ondorioz jarri da abian diru-laguntza hau, kaltetuak gertatu diren ostalari eta beste zerbitzu batzuen jarduera ekonomikoa berrabiarazten laguntzeko eta behar duten bultzada da emateko.

Horretarako aldizkakotasunik gabeko diru-laguntzak emango dira.

## **2. artikulua.- Diru-laguntzak emateko modua.**

Ebazpen hauek zuzenean ematen dira azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorraren 22.2c) artikuluan aurreikusitakoaren babesean, lege horren 28. artikulua 2. eta 3. ataletan eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 67. artikuluan ezarritakoari dagokionez, interes ekonomiko, sozial eta humanitarioko salbuespenezko arrazoiengatik.

Ebazpen honetan araututako diru-laguntzak bereziak dira, prozedura eragin duten gertakariak salbuespenezkoak eta bereziak dira.

## **3. artikulua.- Organo eskuduna.**

Oinarri hauek onartzeko organo eskuduna Hernaniko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da, alkateak 2019ko ekainaren 17ko Dekretu bidez emandako eskumena izanik.

#### 4. artikulua.- Aurrekontu-partida eta –zuzkidura.

Deialdi honen bidez guztira 150.000 euro emango dira diru-laguntzetan, Hernaniko Udalaren 2020ko Aurrekontu Orokorreko partida honen kontura: 1 02.480.01.431.00 2020 (6333) DIRU-LAGUNTZAK-COVID-19-Mikroenpresak.

Hala ere, eskabideen kopurua eta zenbatekoa diru-laguntzetarako bideratutako kopurua baino handiagoa bada, Hernaniko Udalak zenbateko hori handitu ahal izango du, bere finantza-erabilgarritasunaren arabera.

Emango diren laguntzen guztizko bolumenak ez du gaindituko adierazitako kontsignazioa, edo kontsignazio hori eguneratzen ateratzen dena, baldin eta indarrean dagoen legeriaren arabera eta finantza-erabilgarritasuna kontuan hartuta, aurrekontu-aldaketak onartzen badira. Aurrekontu-kreditua handitzearen ondorioz laguntzen hasierako zuzkidura handitzen bada ez da beharrezkoa izango deialdia berriro argitaratzea hura eraginkorra izateko.

#### 5. artikulua.- Entitate onuradunak.

Diru-laguntza hauen araubidea soil-soilik **ostalaritza eta errestaurazio sektoreko** pertsona juridikoei edo mikroenpresei eta norberaren konturako pertsona fisikoei aplikatuko zaie, baldin eta ezarritako baldintzak guztiak betetzen badituzte eta beren jarduera itxi beharrean ikusi badira **lehendakariak azaroaren 6an emandako 38/2020 DEKRETUAN** jasotakoaren indarrez (38/2020 DEKRETUA, azaroaren 6koa, lehendakariarena, zeinaren bidez honako dekretu hau aldatzen baita: 36/2020 Dekretua, urriaren 26koa, lehendakariarena, zeinaren bidez osasun publikoko prebentzio-neurriak hartzen baitira alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko). **Diru-laguntza lerro honetan sartzen dira, halaber, hoteletan eta bestelako ostatueta dauden jatetxeak**

Deialdi honen ondorioetarako:

\* Mikroenpresatzat hartuko da honako bi baldintza hauek betetzen dituen pertsona juridiko oro (sozietate mugatuak, sozietate anonimoak, kooperatibak, ondasun-erkidegoak edo antzekoak):

- 10 langiletik beherako plantilla izatea.
- Urtean 1.000.000 eurotik beherako eta 9.000 eurotik gorako fakturazioa izatea.

Fakturaziotzat hartuko da negozioen zenbateko osoa, eragiketen bolumena edo jardueraren ondoriozko salmenten bolumen osoa. Horretarako, 2020ko irailaren 23ko 1267 Dekretuaren bidez onartutako ekonomia-jardueren gaineko zergaren udal erroldan jasotako datua erabiliko da.

- Onuradunak EJZren epigrafe batean baino gehiagotan inskribatuta badaude, fakturazio-datuak jarduera guztietan sortutakoaren batura izango dira.

- Jarduera-urte oso bat bete ez duten onuradunen kasuan, proportzionalki urtera igoko da benetan egindako tartea.

## **6. artikulua.- Entitate onuradunen baldintzak.**

Deialdi honetan arautzen diren zuzeneko laguntzak eskatu nahi dituzten mikroenpresek edo norberaren konturako langileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- EJZn alta emanda egotea, Hernanin, gutxienez 2020ko azaroaren 6an.
- Gizarte Segurantzarekiko, Gipuzkoako Foru Ogasunarekiko eta Hernaniko Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.
- Deialdi honetan eskabidea aurkeztu duten edo aurkeztuko duten mikroenpresetako bazkide ez izatea edo horietan partaidetzarik ez izatea, eta alderantziz.
- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aipatzen diren desgaikuntza-egoeretako batean ere ez egotea, eta sexu-delituengatik zehapen administratibo, laboral edo penalik ez izatea, uztailaren 28ko 26/2015 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta Berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako baldintzak betetzea.
- Enpresa-jarduerari gutxienez 4 hilabetez eustea, jarduerari berriro ekiteko baimena eman eta hurrengo egunetik aurrera.

## **7. artikulua.- Diru-laguntzen bateragarritasuna.**

Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio publiko edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuek xede eta helburu berarekin emandako beste diru-laguntzekin.

## **8. artikulua.- Diru-laguntzaren zenbatekoa.**

Honako kopuru hauek ezartzen dira:

- Hasierako kopuru finkoa: 800 € establezimendu eskatzaile bakoitzeko.
- Kopuru osagarria: 400 €, justifikatu beharrekoak, jardueraren ohiko funtzionamenduarekin lotutako hornidura materialen kontsumorako (elikagaien erosketa, materiala, aholkularitza-zerbitzuak, konponketak...). Kontsumo hori Hernaniko udalerrian kokatutako txikizkako saltoki edo zerbitzu-enpresetan egin beharrekoa izango da. Neurri honen helburua udalerriko ekonomia zirkularra eta saltoki txikiak sustatzea da.

Diru-laguntza osagarri hau justifikatu egin beharko da, jardueraren titularraren izenean egindako fakturen bidez.

## **9. artikulua.- Eskaera egiteko modua.**

Eskaerak legezko ordezkariak edo eskatzaileak berak aurkeztu beharko ditu, Udalak prestatutako eskabide-eredu normalizatuan.

- Telematikoki, Hernaniko Udaleko erregistro elektronikoaren bidez. Ez dira onartuko eskaera-orriarekin batera aurkeztu beharreko dokumentu guztiak aurkezten ez dituzten eskabideak.

- Aurrez aurre, hhz bulegoan (Herritarren Harrera Zerbitzua). Beharrezkoa izango da hitzordua eskatzea.

## **10. artikulua.- Eskaerak aurkeztea eta tramitatzea.**

Hauek dira establezimenduek diru-laguntza eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

- Eskabide-inprimakia ereduaren arabera.
- Eskatzailearen edo haren ordezkariaren nortasun agiriaren kopia.
- JEZren altaren kopia.
- Gizarte Segurantzarekiko eta Gipuzkoako Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak egunean daudela adierazten duten ziurtagiriak.

## **11. artikulua.- Eskaerak aurkezteko epea.**

Eskaerak aurkezteko epea deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean irekiko da eta itxi, berriz, 2020ko abenduaren 30ean itxiko da.

## **12. artikulua.- Diru-laguntzaren ordainketa eta justifikazioa.**

Eskaera aurkeztu ondoren, egin beharreko egiaztapenak egingo dira, behin-behineko ebazpena emango da eta diru-laguntza ordainduko da.

Eskaerak alkatearen ebazpen bidez ebatziko dira. Ebazpena dagokion eskaera jaso eta gehienez ere hilabete bateko (1) epean jakinaraziko da. Ebazpenik ematen ez bada eskaera ukatu dela ulertuko da.

Diru-laguntzen ordainketa eta justifikazioa honela egingo da:

- Hasierako kopuru finkoa behin-behineko ebazpenarekin batera ordainduko da.
- Kopuru osagarria oinarri hauen 8. artikuluan adierazitako justifikazio-fakturak aurkezterakoan ordainduko da.
- Aurreko atalean aipatutako justifikazio-fakturak eskabidearekin batera aurkezten badira, diru-laguntza ordainketa bakarrean ordainduko da.
- Diru-laguntza osagarriaren justifikazioa 2021eko urtarrilaren 31 baino lehen egin beharko da. Eredu normalizatua (1. eranskina) fakturen datuekin beteko da.
- Laguntza osagarri hori justifikatzeko, jardueraren titularraren izenean egindako fakturak aurkeztu beharko dira. Fakturak ordainduta egon beharko dute, eta abenduaren 1a eta 2021eko urtarrilaren 31 arteko data izango dute. Justifikatu beharreko zenbatekoan ez da BEZ sartuko.

### **13. artikulua.- Publizitatea.**

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. eta 20. artikuluetan xedatutakoa betez, Udalak honako hauei buruzko informazioa bidaliko du Diru-laguntzen Datu-base Nazionalera: diru-laguntzaren oinarri arautzaileak, deialdia, egozten zaizkion programa eta aurrekontu-kreditua, eta diru-laguntzaren xedea edo helburua.

### **14. artikulua.- Ikuskaritza eta kontrola.**

Laguntzen onuradunak behartuta daude laguntzak kudeatzeko prozedura behar bezala gauzatzen dela bermatzera bideratutako egiaztapenak erraztera. Halaber, diru-laguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztapen-jardueren mende daude.

### **15. artikulua.- Ez betetzeak**

Oinarri hauetan edo diru-laguntzaren emanketan ezarritako betebeharren bat betetzen ez bada, diru-laguntza berrikusi egingo da, eta, hala badagokio, emandako zenbatekoa deuseztatu edo itzuli egingo da, diru-laguntzei buruzko udal-araudian aurreikusitako moduan.

Diru-laguntzak itzultzeko prozedura ofizioz hasiko da, laguntza edo diru-laguntza eman zuen organoak eskatuta, eta, hala badagokio, emandako zenbatekoa deuseztatzea, murriztea edo itzultzea ebatzi ahal izango da, modu arrazoituan. Prozeduraren tramitazioan zehar uneoro bermatuko da interesdunak entzuna izateko duen eskubidea.